

Ebazpena: R102/2023

Espedientea: E003/2021

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 15a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabakitzen dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, GLOBALIA HANDLING SAUren eta IBERHANDLING SAUren arteko ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK (laburtuta, GROUNDFORCE BIO 2015 ABEE, eta, aurrerantzean, ABEE)(18/1982 LEGEA) 2015eko maiatzaren 27tik aurrerako ondorioekin egoitza fiskala aldatu duela-eta, eta, horrekin batera, ABEEak konpentsatzeko utzitako BEZaren kuotari aurre egiteko ZAEAK duen betebeharra dela eta. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 3/2021 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- Aldi baterako enpresa-elkartea 2015eko maiatzaren 27an eratu zuten Madrilen GLOBALIA HANDLING SAU eta IBERHANDLING SAU enpresek. Biek Lluçmajor udalerrian (Balear Uharteak) dute egoitza, Arenal-Lluçmajor errepideko 21,5 km-an (Son Noguera industrialdea). Hauek dira haren eraketaren daturik garrantzitsuenak:

- ABEEaren helburua da lurreko laguntza-zerbitzuak ematea Bilboko aireportuko arrapala-zerbitzuen kategorietan, baita aireportu horretako beste *handling* zerbitzu batzuk ere.
- ABEEaren goi-zuzendaritza, -kudeaketa eta -gubernua gerentzia-batzorde bati esleitu zaio. Batzorde horretako kideek egoitza fiskala lurralde erkidean dute.
- ABEEaren egoitza fiskala Bilboko aireportuan dago, AIR Europa-Groundforce enpresaren bulegoan, Loiuko (Bizkaia) Asua-Erletxeta errepidea z.g. helbidean.

2.- 2015eko abenduaren 4an, ABEEaren gerentzia-batzordeak ABEEaren egoitza fiskala aldatzea erabaki zuen (Llucmajor, Balear Uharteak, Arenal-Llucmajor errepidea, 21,5 km, Son Noguera industrialdea). 2015eko abenduaren 23an, eskritura publikoan jaso zen; 2016ko martxoaren 3an, egoitza-aldaketa jakinarazi zion ZAEARI, eta 2018ko apirilaren 4an, berriz, BFARI.

3.- ABEEaren 2015eko eragiketa-bolumena —orduan eratu zen— 10 milioi eurotik beherakoa izan zen.

4.- ABEEak zerga-aitorpen guztiak aurkeztu zituen ZAEAN, salbu eta ABEEak ordaindutako lan-etekinen atxikipenei buruzkoak eta 2015eko BEZaren urteko aitorpenari zegozkionak —itzuli beharreko zenbatekoa: 78.129,76 €—.

2016ko urtarrilaren 28an, ABEEak 2015eko BEZaren urteko laburpen-aitorpen bat aurkeztu zion BFARI —konpentsatzeko 78.129,76 €-ko zenbatekoa—, eta 2019ko urtarrilaren 31n BFARI BEZaren azken autolikidazio bat aurkeztu zion —itzuli beharreko zenbatekoa: 78.129,76 €—.

5.- 2020ko martxoaren 4an, ABEEa Bizkaitik Lluçmajorrera (Balear Uharteak) aldatzeko proposamena bidali zion BFAk ZAEARI, 2015eko maiatzaren 27tik aurrerako ondorioekin.

6.- 2022ko abenduaren 22an, ZAEAK BFARI jakinarazi zion, eskaera 2020ko martxoaren 5ean egin zenez, egoitza fiskalaren aldaketak 2016ko martxoaren 5era arteko atzeraeraginezko ondorioak baino ezin zituela izan bi administrazioen artean. Beraz, 2015eko ekitaldia Bizkaian geratuko litzateke kokatuta, eta urte horretako BEZaren zenbateko positiboak eta/edo negatiboak BFARI dagozkie. Ondorioz, egoitza aldatzeko prozedura amaitutzat jotzen du.

7.- 2021eko urtarrilaren 21ean, BFAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela-eta, bete egin da ZAEAK alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa hilabeteko epean aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Egoitza fiskala

ZAEAk, bere alegazioetan, BFAk proposatutako egoitza-aldaketarekin ados dagoela adierazi du, egiaztatu baitu ABEEaren egoitza fiskala Lluçmajor udalerriko (Balear Uharteak) Arenal-Lluçmajor errepideko 21,5 km-an (Son Noguera industrialdea) dagoela, 2015eko maiatzaren 27an eratu zenetik.

3.- Preskripzioa

Egoitza fiskalaren aldaketa baten atzeraeraginetik eratorritako finantza-fluxuak bidaltzea administrazioen arteko eskubide publikoko kreditua da.

Arbitraje Batzordeak, 11/2014 Ebazpenean, eta Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 15eko (ECLI:ES:TS:2015:5337), 2020ko maiatzaren 18ko (ECLI:ES:TS:2020:1010), 2020ko abenduaren 3ko (ECLI:ES:TS:2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28ko (ECLI:ES:TS:2021:372) eta 2022ko otsailaren 10eko (ECLI:ES:TS:2022:596) epaietan, honako irizpide errepikatu hau finkatu dute: administrazioen arteko kreditu publikoaren eskubidea aurrekontu arloko izaera publikoko eskubidea da, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubideaz bestelakoa; eta administrazioen arteko kreditu publikoaren eskubidearen preskripzio-epea sarrera bidegabea egiten den unean hasten da, eta ez da eteten zergapekoarekin (hirugarren bat administrazioen arteko harreman juridikoan) eskuduntzat jotzen den administrazioak betetako zerga-prozeduran egindako egintzen ondorioz.

Ondorioz, zergapekoak egindako diru-sarreretatik eta itzulketetatik eratorritako kreditu-eskubidea 2016ko maiatzaren 5era atzeratzen da, nahiz eta bi

administrazioek aitortu zergapekoaren egoitza fiskala askoz ere lehenago zegoela lurralde erkidean (2015eko maiatzaren 27an).

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea BFari dagokiola bere gain hartzea 2015eko ekitaldian konpentsatu beharreko BEZaren kuotaren itzulketa (78.129,76 €).

3.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta GROUNDFORCE BIO 2015 ABEEari.